


JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZA

GIDA



JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZA

GIDA

www.elankidetza.euskadi.eus

Argitaraldia: 2024ko otsaila

Argitaratzaileak: eLankidetza - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia

Egilea: Andrea Antúnez (@Tu_compi_de_sociales)

Maketazioa: Alaiondo estudio



AURKIBIDEA

1. AURKIBIDEA	4
2. ABIAPUNTUA <i>etorkizunak ereiten</i>	5
3. LEGE BULTZADAK <i>lege bat eta dekretu bat</i>	7
4. JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZA LANTZEKO GAKOAK	8
4.1 Printzipio pedagogikoak	8
4.2 Metodo pedagogikoak	9
4.3 Metodologia aktibo eta inklusiboak	11
4.4 Estrategia didaktikoak	12
5. GARELAKO NAIZ <i>sarean lanean</i>	13
6. BALIABIDEAK ETA MATERIALAK	15

1.SARRERA

Egungo larrialdi klimatikoaren arrazoi nagusia giza jarduera da, bereziki Iparralde Globaleko herrialdeetako: deforestazioa, garraiotik eta industrializazioetik eratorritako gasen isurtzea, itsaso eta ibaien kutsadura, lehortekak...

Jasangarritasunerako hezkuntzak (aurrerantzean JH) aukera ematen digu krisi honen arrazoiak ulertzeko, komunitateetan eta planetan dituen ondorioak aztertzeko eta irtenbide kolektiboak lantzeko. Horretarako, JHk identifikatzen ditu Ipar Globalaren eta Hego Globalaren, hirien eta herrien, edo komunitate pobretuen eta aberastuen arteko erantzukizuna, urrakortasuna eta jarduteko gaitasun bereziak.

JH kontzientziazioan, hezkuntzan eta baliabideak sortzean funtsezko elementu bihurtu da, pertsona bakoitzari iraunkortasunerantz aurrera egiteko aukera ematen baitio. JH ingurumen-hezkuntzatik haratago doa (ekosistemak ikuspegi ekologiko batetik maneiatzea eta ezagutzea du ardatz), herritarren eta gobernuen ikuspegi ekosoziala eta erantzukizun-ikuspegia jorratuz.

Elankidetza- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, **(H) ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren estrategiaren** esparruan, **Heziketa Topaketa** jardunaldia egiten du urtero, Hezkuntza Sailarekin batera. Jardunaldietan, hezkuntza formaleko, ez-formaleko eta lankidetza-eragileak biltzen dira, estrategia horri lotutako gai baten inguruan jardunbide egokiak,

hausnarketak eta baterako ikaskuntzak sakontzeko eta trukatzeko. Jardunaldi hauek (H)abian strategiaren indar-ideiei erantzuten diete: ikuspegi politiko-pedagogikoak, eskubideen ikuspegia eta ikuspegi lokal-globala sustatzea eta indartzea.

2023an, VI. Heziketa Topaketaren gaia **Jasangarritasunerako Hezkuntza** izan zen. Gida honek biltzen ditu JH lantzeko esparru pedagogiko bat, jardunaldian partekatutako ideia batzuk eta baliabide eta materialen bilduma. Gainera, gidaren **laburpen-bideoa** eta Heziketa Topaketan partekatutako material guztia ere kontsulta daitezke.

IKUSI



2. ABIAPUNTUA

ETORKIZUNAK EREITEN

NONDIK GATOZ?

1975ean, nazioarteko dokumentu batean lehen aldiz Ingurumen-Hezkuntza-ren kontzeptua (aurrerantzean IH) garatu zen, **Belgradeko Gutunean**. Gutun horrek landu beharreko funtsezko 6 helburu identifikatzen zituen: *kontzientzia, ezagutzak, jarrerak, trebetasunak, ebaluatzeko gaitasuna eta parte-hartzea*.

Urteak igaro ahala, helburu horiek zabalduz eta nazioarteko esparruetara egokituz joan dira: lehenik, Milurteko Garapen Helburuekin, eta, ondoren, 2030 Agenda osatzen duten Garapen Iraunkorreko Helburuekin. Hala, **ikuspegi ekosoziala** (planetaren eta pertsonen zaintza), **erantzunkidetasuneko ikuspegiak** (denak arduratsuak, inor atzean utzi gabe) eta gako horiek bizitzaren arlo guztietan zeharka txertatuko dituen **eredu-aldaketa** aintzat hartuz. Beraz, Ingurumen Hezkuntza, JHren ikuspegi zabal eta kritiko gisa uler daiteke.

1969 Stapp -ek IHren lehen definizioa eta helburuak ezarri zituen (*The Journal of Environmental Education*) eta sustapen-kanpainak hasi ziren.

1977 Nazioarteko Konferentzia (Ingurumen Hezkuntza hezkuntza-sistemetan sartzeko akordioa).

1992 Rio de Janeiroko Lurraren Goi-Bilera (agenda eta plan berri bat ingurumen- eta garapen-gaien inguruan nazioarteko ekintzarako)

2001 Eskolako Agenda 21 (ikastetxeek udalekin batera garapen iraunkorraren alde lan egiteko konpromisoa)

2015 Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorreko Helburuak onartu zituen (planeta eta bertako biztanleak errespetatuko dituen oparotasuna lortzea helburu duen plana)

1975 Belgradeko Ingurumen Hezkuntzako Nazioarteko Mintegia (ingurumen-kontzientzia hezkuntzan sartzen da).

1987 Brundtland txostena - "Gure Etorkizun Komuna" (egungo garapen ekonomikoaren eta jasangarritasunaren jarrera aurrez aurre jarri eta alderatzen ditu).

2000 Milurtekoaren Adierazpena: "Earth Charter Endorser" Lurraren gutuna onartu zen eta Milurtekoaren Helburuak (ikuspegi ekosoziala).


2002 Garapen Iraunkorrari buruzko Munduko Goi-Bilera - Johannesburgo (ingurumenarekiko errespetua kontuan hartzen duen garapena lortzea)

2021 Berlingo Nazioarteko Konferentzia (Berlingo Adierazpena, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzkoa)

NORA GOAZ?

Denbora honetan zehar, Euskadin, jardunaldiak, esperientziak, prestakuntzak, curriculum-aldaketak, esperimentazio-proposamenak eta hainbat programa egin dira, bai eta legeak eta dekretuak aldarrikatu ere, hezkuntza-jardueretan IH eta, ondoren, JH txertatzeko xedearekin. Azken horien artean honako hauek nabarmentzen dira: Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020), Tokiko Agenda 21, Euskadi Basque Country 2030 Agenda eta Basque Green Deal Ekimena (2021).

Ekimen horien guztien helburu nagusia iraunkortasunarekin lotutako elementuak **ulertzen laguntzea** eta herritarrek **ahalduntzea** da, eremu ekosozialean jarduteko.



INGURUGELAK

Ingurumenarekiko Hezkuntza eta Ikerketa Didaktikoko guneak- irakasleei eta ikastetxeei laguntzeko ekipamendu publikoen sarea da, eta 1989az geroztik, Ingurumen Hezkuntzako planak eta programak koordinatzen dituzte unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sisteman.

IKUSI

AZTERTU programa

ingurunea ezagutzuz eta herritarren parte-hartzea bultzatuz, arreta piztu eta ingurumena zaintzeko beharrez kontzientziatu nahi du, eta, aldi berean, gizakiaren eta haren ingurune naturalaren arteko harreman iraunkorra ezarri nahi du.

IKUSI

Ekozinemaldia

hainbat GGKEk, gazte-elkartek, ingurumen-elkartek eta beste kolektibo sozial batzuek sustatzen dituzten ekintzen artean, Ekozinemaldia: zinema eta zor ekologikoari buruzko jaialdia, prestakuntza eta sentsibilizazio jarduera paraleloekin. Ekologistak Martxan eta Mugarik Gabeko Ingeniaritza elkarrekin antolatzen dute, TRADENER (Trantsizio Demokratiko Energetikoa) proiektu bateratutik.

IKUSI


3. LEGE BULTZADAK

LEGE BAT ETA DEKRETU BAT

2024ko otsailaren 4an sartu zen indarrean **17/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena**. Dokumentuak JH jasotzen du, Euskal Hezkuntza Sistemaren Printzipioetan (3. artikulua): *Ikasleen prestakuntza aktiboa eta kritikoa, jakintzaren sustapenean oinarrituta, beren eta ingurunearen garapenarekiko konpromisoa erraztuz, bereziki planetaren etorkizunari dagokionez, iraunkortasunari dagokionez. Horrela, nazio-mailako lan-ildoak zehazten ditu.*

Izan ere, Hezkuntzari buruzko **Estatuko egungo legeak** aipatzen duen bezala (**3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maitatza-ren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena**), JHn oinarrituta lan egitea jada, ez da hautazkoa. Esaten duen eran, "2030 Agendan ezarritakoari jarraituz, Legeak onartzen du garrantzitsua dela garapen jasangarriaz arduratzea. **Garapen jasangarriaren aldeko eta munduko herritar** izateko hezkuntza derri-gorrezko hezkuntza osoko hezkuntza-plan eta -programetan txertatu behar da, eta ezagutza, gaitasun, balio eta jarrera jakin batzuk barne hartu behar ditu, ahalbidetuko diotenak pertsona orori bizitza oparoa bizitzen, erabaki oinarrituak hartzen eta rol aktiboa izaten –tokian-tokian zein mundu mailan– munduko herritar guztiek izaten dituzten arazoei aurre egiteko eta konponbidea bilatzeko garaian.

Euskadin JH sustatzeko beste lege-tresna garrantzitsu bat **Ingurumen Hezkuntzari buruzko Dekretua** da (**130/2022 DEKRETUA, azaroaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoan iraunkortasunerako ingurumen-hezkuntza sustatzekoa**). Dekretuak euskal gizarteak hainbat hamarkadatan iraunkortasunaren alde egindako lana balioesten du, eta ildo berean lan egiten jarraitzeko neurriak proposatzen ditu, erakundeen laguntzarekin, hezkuntza formaletik haratago joanez. Bere helburuen artean **JHko Berrikuntza, Trebakuntza eta Ezagutzaren Kudeaketarako Gunea** sortzea; **hezkuntza-komunitateak parte hartzeko tresnak** garatzea (2030erako Iraunkortasunerako IHren Agendaren esparruan); edo JHren eta hezkuntza-planen printzipioen arteko **konektibitate-mekanismoak** ezartzea aurkitzen dira.



4. JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZA LANTZEKO GAKOAK

PRINTZIPIO PEDAGOGIKOAK

Hainbat estrategia metodologiko aplikatzeko bideari ekin ahal izateko, gure hezkuntza-estrategia gidatuko duten printzipio pedagogikoak eta hezkuntza-eredua zehaztu behar ditugu.

Hauetara dira iraunkortasunaren aldeko hezkuntza-estrategia garatzeko printzipio pedagogikoetako batzuk:



Konpetentziak eskuratzea

Inklusioa eta ekitatea

Ikaskuntza sakona eta funtzionala

Ebaluazioa hezitzailea

Ongizate emozionala

Hizkuntza-inklusiua

Zeharkako proiektuak, esanguratsuak eta garrantzitsuak

METODO PEDAGOGIKOAK

Behin printzipioak definituta, ikaskuntza unibertsala eta ekintza kolektiboa sustatzen dituzten hainbat metodo pedagogiko erabil ditzakegu. Metodoa, hezkuntza-eredua praktikan jartzeko modua da. Helburua, ingurunearekiko errespetua, lankidetzeta eta proposamenak pentsamendu kritikotik bultzatzea da.


IKASKETARAKO DISEINU UNIBERTSALA (IDU)

Ikasleek hainbat modutara ikasten dutela eta **ikaskuntza-teknika berezietz** baliatzen direla onartzen duen hezkuntza-esparrua da. Horretan oinarrituta, inklusioa eta parte-hartze eraginkorra lortzeko, curriculum egokitu egiten da, ikasteko oztopoak minimizatuz eta ikasle guztien ikasteko aukerak maximizatuz.

IDUk hezkuntza-estrategia aztertzen eta hainbat testuinguru eta errealitatetara egokitzen laguntzen digu. Bere **hiru printzipioei** erantzuteko aukera ugari eskaintzen ditu: irudikapena; motibazioa eta ekintza, eta inplikazioa.

- *Jarduerak eta zereginak hainbat hizkuntzatan azaltzea*
- *Piktogramekin laguntza bisuala eskaintzea*
- *Talentuaren portfolioa*
- **Bloom-en Taxonomia** erabili
- *Visual Thinking*
- *Rol kooperatiboak*
- *Eguneroko agendak*

IKUSI



PENTSAMENDUAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA

Ikasleek erabakiak hartzen, argudiatzen, aztertzen eta sortzaileak eta kritikoak izaten ikas dezaten, hezkuntza-esparruak dira. **Pentsatzen irakastea** da kontua, tresna kritikoak ematea gure ekintzen eraginari buruz aukeratu eta **kontzientziatu** ahal izateko. Funtsezkoa da oinarritik hezteko gizartea eraldatu ahal izateko, eta hori hiru fasetan banatzen da:



1
Ezagutzea,
ikertzea,
jakitea.

2
Bihotza hezte,
kontzientziatzea,
enpatizatzea.

3
Zabaltzea eta
jardutea: Zer eman
dezaket? Nola hobetu
dezaket egoera?

IKASKUNTZA DIALOGIKOA

Ikaskuntza dialogikoa pertsonak beste pertsona batzuekiko **elkarre-
raginetatik ikasten** dutela dioen premisan oinarritzen den metodo
pedagogiko bat da. Ikaskuntza dialogikoaren printzipioak ondoren-
goak dira: berdintasunezko elkarrizketa, adimen kulturala, eraldaketa,
dimentsio instrumentala, zentzua sortzea, elkartasuna eta desber-
dinen arteko berdintasuna. Metodo hau **ikaskuntza-komunitate** gisa
ezagutzen diren testuinguruetan garatzen da: ikasleen ikaskuntza
eta bizikidetzaren hobetzea helburu duen proposamena. Gizarte- eta
hezkuntza-erlaketara bideratutako hezkuntza-jarduera arrakastat-
suetan oinarritutako proiektuak dira.

TALDE INTERAKTIBOAK

*Ikasgelaren antolamendua
planifikatzen duen estrategia
didaktikoa, **taldearen hete-
rogeneotasunean** oinarritu-
ta gai espezifikoak lantzen
dira. Bolondresak, helduak,
familiak eta abarrek hartzen
dute parte eta horien bidez
interakzioak biderkatzen dira
eta ikaskuntza eraginkorra
areagotzen da.*

IKUSI

SOLASALDI DIALOGIKOAK

*Esanahiaren eta ezagutzaren
eraikuntza kolektiboa bultzat-
zen duen hezkuntza-estrategia,
solasaldian parte hartzen
duten pertsona guztiekiko
elkarrizketan oinarrituta. Bere
funtzionamendua ikaskuntza
dialogikoaren 7 printzipioetan
oinarritzen da eta hainbat gai
jorratu daitezke: literatura,
musika, zientzia, artea, bes-
teak beste.*

ESPERIMENTAZIOA

JHren oinarri gisa kontzientzia hartzearen eta pentsamendu kritikoa
garatzearen garrantziaren aurrean, **modu autonomoan eta espe-
rimentazioaren** bidez lan egiteak inguruko mundua eta aniztasuna
era guztietan ulertzeko aukera ematen du. Jakin-mina, behatzeko
eta galderak egiteko gaitasuna eta ideiak kontrastatzeko gaitasuna
estimulatzen ditu.

Esparru horretan biltzen dira esperimentuei, landa-lanari, errealitate
areagotuari, adimen artifizialari edo eskulanei lotutako proposame-
nak; klima-aldaketa, globalizazioa, kontsumismoa, desertifikazioa
eta antzeko kontzeptuak ulertzeko aukera ematen dutenak.

IKASKUNTZA KUTXAK

*Ikaskuntza interaktiboa, praktikoa eta esperimentalaren errazteko
eta sustatzeko diseinatutako hezkuntza-tresnen multzoak dira.
Kutxa horiek gai jakin batekin lotutako material eta baliabide
ugari izan ohi dituzte. Hezkuntza-ingurune formaletan, esko-
letan eta unibertsitateetan erabil daitezke, bai eta ingurune
ez-formaletan ere, hala nola; etxeetan edo zientzia-klubetan.
Barnean aurkitu daitezke liburuak, argibide-gidak, esperimen-
tuak, laborategiko materialak, joko interaktiboak, eraikunt-
za-tresnak edo beste baliabide didaktiko batzuk.*

IKUSI

METODOLOGIA AKTIBOAK ETA INKLUSIBOAK

Ikasleari eskaintzen zaion **metodoen, aukeren eta baldintzen** multzoa da. Sistematikoki antolatuta daude eta proposatutako helburuak errazago lortzen laguntzen dute. Metodologiak galdera honi erantzungo lioke: Nola irakatsi?

PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA (POI):

Hezkuntza formalean ohikoa den metodologia da. Bertan, ikasleek ikerketa- eta sorkuntza-prozesu bat egiten dute, galdera bati erantzunez, arazo bat konponduz edo produktu bat sortuz. Proiektuak, ikasleak hezkuntza-legeriak ezarritako ikaskuntza-edukiak eta -adierazleak txertatu ahal izan ditzan planifikatu, diseinatu eta gauzatu behar dira (INTEF).

IKUSI

ZERBITZU- IKASKUNTZA

Zerbitzu- ikaskuntza **hezkuntza ez-formalerako** proposamen egokia da; ikaskuntza-prozesuak komunitateari zerbitzua emateko proposamenak uztartzen baititu. Proiektuan, parte-hartzaileek beharrak identifikatzen eta hauen baitan lan egiten ikasten dute, ingurunearen benetako premiei erantzuteko, hura hobetzeko helburuarekin. Pertsonaren dimentsio kognitiboa eta etikoa bateratzen dituen **filosofiatzat** hartzen da, bai eta komunitateari zuzendutako hezkuntza-kalitatea eta gizarteratzea bateratzen dituen **pedagogiatzat** ere.

BERDINEN ARTEKO TUTORETZAK

Hezkuntza-errefortzua

EKO IKUSKARITZA

Norberaren ingurunean lan egitea, arazoak aurkituz eta hobetzeko irtenbide propioak diseinatz.

BAKEAREN ENBAXADOREAK

Udalentzako proposamenak gatazkak konpontzeko

ELKARTASUN KILOMETROAK

Jostailuak biltzeko martxak

ODOLA EMATEA

Ekintzaren eraginari buruzko datuak dituzten kartelak itsatsi

PODCAST EKOSOZIALA

Komunitateko hainbat partaide gonbidatuko dituen podcast bat sortzea

KLIMA-ALDAKETA- REN BITARTEKARIAK

Komunitatean klima aldaketaz kontzientziatzeko esperimenduak eta jolasak

IKUSI


ESTRATEGIA DIDAKTIKOAK

Piageten arabera, estrategia didaktikoak irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak gidatzeko egin beharreko sekuentziak zehaztea ahalbidetzen duten **baliabide, bitarteko eta jarduera** guztiak dira. Irakaskuntza-teknika espezifikoetatik ebaluazio-tresnetaraino erabili daitezke.

LOMLOEtik abiatuta, eta erkidegoko dekretuetan oinarrituta, estrategia didaktiko eraginkorrenetako bat azalduko dugu jarraian:

IKASKUNTZA EGOERAK

Ikasleek kompetentziei lotutako jarduerak hedatzea eskatzen duten agertoki eta jarduerak dira, eta kompetentziak eskuratzen eta garatzen laguntzen dute. Hainbat arlotako elementuak zeregin eta jarduera esanguratsu eta garrantzitsuen bidez integrazeko tresna dira, arazoak modu sortzaile eta kooperatiboan konpontzeko. **Abiapuntua hurbileko problematika** izango da beti, eta GIHeekin erlazionatuko da. Azkenik, arazoaren konponbidea bizitzara transferituko da azken ekoizpenei esker.



●
Landu eta zabaldu dugun informazioarekin infografia bat sortzea

●
Antzezen dramatikoak

●
Hezkuntza-komunitatearekin eztabaidak

●
Podcast bat sortzea edo erakundeei gutunak idaztea

5. GARELAKO NAIZ SAREAN LANEAN

Bai arau-xedapenetan, bai aurretik aurkeztutako proposamen pedagogikoe-
tan, JH garatzeko funtsezko elementu bat nabarmentzen da: **eraikuntza ko-
lektiboa**. Taldean eta sarean lan egiteak helburu globalak betetzea errazten
du (nork bere ezagutza eta gaitasunetik), motibazioa eta sormena areagotzen
ditu, eta pertsona eta eragile guztien trebetasunak eta ekarpenak indartzen
ditu erronka komun bati erantzuteko.

Ondoren, Euskadin, gaur egun sareko lanean oinarritzen diren proiektu
batzuk aipatuko dira; hauek, politika publikoaren esparruan eta hezkuntza
formalean eta ez-formalean aurrera eramaten dira:


Euskadin Iraunkortasunerako Ingurumen Hezkuntza Bultzatzeko Boost-Proiektua. Sarean lan egiteko adi- men kolektiboa

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak bultzatutako
Boost proiektuaren helburuak iraunkortasuna sustatzea eta horren
inguruan komunitatea sortzea dira. Euskadiko larrialdi klimatikoaren
eta ingurumen-hezkuntzaren egoeraren azterketa sakona du abia-
puntu, eta hainbat eragileren arteko talde-laneko ardatz batzuk
planteatzen ditu, **adimen kolektiboa** sustatuz, erronka komunak
identifikatu eta jorratzeko.

Lan-ildoen artean, honako hauen aldeko apustua egiten da: inguru-
men-hezkuntza ikasgeletara eta ikasgeletatik haratago eramateko
lankidetzan aritzea; komunitatearen ahaleginak zabaltzeko diziplina
anitzeko sareak eraikitzea; erreferentziazko komunikazio-kanal bat
izatea edo "Eskola Jasangarriak" aitorpena.

Derio Nekazaritza Eskola: Elikadura eredu berri osasuntsuagoa eta bidezkoagoa

Derioko Nekazaritza Eskolan **iraunkortasuna modu integralean
sustatzen** dute, irakaskuntza-metodo eta metodologia berritzaileak
aplikatuz. Hala, iraunkortasunaren ikuspegia sustatzen dute ziklo
orokorretan; prestakuntza-maila bakoitzean, alde batetik, ekologia-
rekin eta iraunkortasunarekin lotutako espezialitate espezifikoak
txertatzen dituzte (agroekologia, paisajismoa eta ingurumena);
zeharkako kompetentzien garapena sustatzen dute beste eragile
batzuen eskutik (produkzioaren eta elikaduraren eraginari, bioeko-
nomiari eta ekonomia zirkularri buruzko hausnarketa), eta teoria
praktikan jartzen dute (ikasleek kooperatiba agroekologiko bat jart-
zen dute abian).




Amazonia gara, gure etxea defenda dezagun

Somos Amazonia Alboan eta Entreculturas GGKEek bultzatutako kanpaina da, klima aldaketaren aurkako borrokan eta Amazoniaren eta bertan bizi diren herrien defentsan herritarrak mobilizatzeko helburuarekin. Beren hezkuntza-proposamena giza eskubideetan, sentitzean, pentsatzean eta jardutean oinarritzen dute, baita ikuspegi lokal-globalean ere.

Ikasleei ikuspegi ekofeministetatik eta gizarte- eta ingurumen-justiziaren ikuspegitik gaia hurbiltzeko **hainbat material** ditu: erakusketak, enpresa-sareak, ikerketak, hezkuntza-jardunaldiak eta deskarga daitezkeen materialak, hala nola album ilustratuak, bideoak edo posterrak, besteak beste.

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzako Eskualde Zentroa (RCE)

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzako Eskualde Zentroa, Euskadin eta Nafarroan kokatua, hezkuntza formalarekin, ez-formalarekin eta informalararekin lotutako erakundeen **sare bat da, UN Etxeak** sustatua, garapen jasangarrirako ikaskuntza errazten laguntzen duena. UNESCOren #EDSpara2030 Ekintza Globaleko Programaren parte da. Hiru helburu ditu: JHri lotutako Euskal Herriko eragileen elkarriketa formalki artikulatzea; elkarlaneko proiektu komunen finantzaketa eta exekuzioa erraztea eta mundu mailako beste zentro batzuekiko aliantzak bultzatzea, bereziki Iberoamerikan, JHn aurrera egiten laguntzeko, eragile anitzeko eta sektore anitzeko ikuspegi batetik.



6. BALIABIDEAK ETA MATERIALAK

MATERIALAK

- // UNESDOC baliabideen liburutegia (UNESCO)
- // Iraunkortasunerako hezkuntza, ikaskuntza-egoeren bidez. Irakasleentzako gida teoriko-praktikoa (UN Etxea)
- // Frieda- GJHen mezu unibertsala - ipuina (NBE)
- // Garapen Iraunkorreko Helburuak. Bigarren Hezkuntzarako gida didaktikoa (UN Etxea)
- // GJHei buruzko gida pedagogikoak biltzea (Camargo Educación)
- // Ingurumen-hezkuntzako eta klima-aldaketako baliabideak (Bizkaiko Foru Aldundia)
- // Hezkuntza-baliabideak ES (CIMA, Kantabriako Gobernua)
- // Gallipata haurrentzako aldizkaria (Ekologistak Martxan)
- // "Ikasgelatik lurrera" unitate didaktikoa (Iraunkortasun Eskola, Iruñeko Udala)
- // 2030 Agendari eta GJHei buruzko bideo animazioa (UN Etxea)

WEBGUNE INTERESGARRIAK

- // Actúa ahora
- // Amigos de la tierra
- // Área de educación de Ecologistas en Acción
- // Conciencia eco
- // Medicos del mundo
- // Objetivos de Desarrollo Sostenible (Naciones Unidas)
- // UN Etxea
- // Viviendo consciente

ONLINE JOKOAK


- // Go goals
- // Juegos oca ODS
- // Juegos ODS
- // Trivial ODS

FILM LABURRAK

- // Come como la persona que quieras ser
- // Cuerdas
- // En mis zapatos
- // Runaway
- // What does it mean to do things like a girl?
- // 2050 cortometraje

FILMAK

- Before the flood // Campeones
- // Elemental // El monstruo invisible // En busca de la felicidad // Encanto // Happy feet: rompiendo el hielo // La energía de los pueblos // La ola
- // La mujer de la montaña // Lilyana // Minúsculos // Nemo
- // Vecinos invasores // Wall-e
- // Wonder // Zootropolis



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



(H)ABIAN